











Gehien mailegatutako euskarazko liburuak: uztaila-iraila

	<p><u>Bihotz handiegia</u> / Eider Rodriguez N ROD</p> <p>Arroztasun sentipena dute Eider Rodriguezen sei ipuinetako pertsonaiek: nolakoa izaten ari da bikote bizi hau, zein desio ote ditu auzokide perfektuak, nor bihurtu gara sute ikaragarriaren ondoren, ginekologoak erakutsiko al dit nolakoa naizen barrutik, zer espero zuten izango nintzela, norenak dira esku hauek.</p>	
	<p><u>Jenisjoplin</u> / Uxue Alberdi N ALB</p> <p>Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desafioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest.</p>	
	<p><u>Arotzaren eskuak</u> / Alberto Ladron Arana N-4 LAD</p> <p>la ezagutzen ez zuen aitona herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitona iraganaz galdetzera behartuko duena. Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramango du, II. Mundu Gerraren garaian</p>	
	<p><u>Azala erre</u> / Danele Sarriguarte N SAR</p> <p>Sare sozialen sasoian, ikuskizunaren gizarte post-industrialean, bi artista, Miren eta Jon, eta artea ulertzeko modu bi, talkan. Artistaren galderak XXI. mendearen aurrean: zenbat da obra eta zenbat artistaren marka? Zer gertatzen da pertsonaia guztiz jabetzen denean pertsonaz? Nola kudeatu arrakasta eta nola porrota?</p>	
	<p><u>Honetara ezkeru</u> / Arantxa Iturbe N ITU</p> <p>Arantxa Iturberen ipuin maleziatsu hauetan ere ustegabeko asko izango dira, pertsonaiek eta gertakariak katramilatzen ikusiko dituzu isilpekoen kariaz, oker ulertuak bezainbat ager litezke susmoak.</p>	

	<p><u>Rocka puntua!</u> / Alberto Irazu 891.69.09 IRA</p>	
	<p><u>Zubigileak</u> / Alfonso Zapico Ce ZAP</p> <p>2016ko neguaren lehen egunean, Eduardo Madina eta Fermin Muguruza Irunen elkartu ziren. Aitzakia Jot Down magazinerako elkarrizketa bat izan zen, baina edozein estakuru izan zitekeen egokia bi euskaldun horiek, bizi-ibilbide itxuraz oso desberdinak izan dituzten bi euskaldun horiek, elkartzeko.</p>	
	<p><u>Hitzontziak</u> / Xabier Montoia N MON</p> <p>Langile borroka, sabotajeak, lapurretak, drogak, negozioak, hilketak, adiskidantza, amodio harremanak dira Xabier Montoiaren zortzigarren nobelako adarrak. Iturri tabernan topo egiten dute aldiaren behin Oihane filosofo gazteak, Biteri tabernariak, Gloria alargunak eta Goietxe ugazabak. Ez dira laurak elkarren lagunak, baina denok ere iragan bat badugunez, pixkanaka elkarren berri izaten hasiko dira.</p>	
	<p><u>Zu entzuteko gaude</u> / Xabier Mendiguren Elizegi N MEN</p> <p>Bere seme elbarria hartuta, garai baten bertan behera utzi zuen Jean-Marcengana joango da Irati, barruko harra isildu nahian. Edurnek bikotea eta lana galdu ditu eta mareak hondartzan utzitako enborrak erreskatatzen ditu eskultura bihurtzeko, kaosa ordenatzeak bere bizitzari zentzua emango diolakoan. Bertak desesperatutako jendearen telefono-deiak aditzen egiten du lan, baina nori kontatuko dizkio berak bere minak?</p>	
	<p><u>Nola heldu naiz ni honaino</u> / Kattalin Miner N MIN</p> <p>Enpresan mailaz eta soldataz igotzea, herentzia bat jasotzea, etxe bat erosi ahal izatea, lagun ugari edukitzea... Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikieria batekin paralizaturik geratuko da.</p>	